



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko martxoaren 1a

25. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gure erkidegoko haragien eta haragi-jakien kalitate-azterketak egin ditzan. Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Espainiako Gobernuak onetsi nahi duen Toki Administrazioaren erreforma. Xabier Lasa Gorraiz jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da “Sirio Tormenta 2013” izeneko maniobrak bertan behera utz ditzan. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gizarte-bazterketari buruzko diagnosi bat eta Nafarroako Gizarteratze Plan berri bat egin ditzan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraungarritasunari buruzko Lege aurreproiektua erretira dezan. Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztu du (7. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna ospatzearekin. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baitu Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraungarritasunari buruzko Lege aurreproiektua. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak emakumezkoen eta gizonezkoen arteko gizarte- eta lansari-desberdintasunei dagokienez, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (10. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak baliatuko ote dituen Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenak Nafarroako toki entitateen eskumenen eta eskubideen alde egiteko, Xabier Lasa Gorraiz jaunak egina (11. or.).

- Galdera, Tuterako Musika Kontserbatoriorako urte anitzeko hitzarmenaren baldintzei buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (11. or.).
- Galdera, 2012ko ekitaldian Osasun Departamentua xede izan duten kreditu gehikuntzei buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (12. or.).
- Galdera, jakitekoa Osasun Publikoaren Institutuak sukalde zerbitzuari buruzko txostenik igorri duen Osasun Departamentura hura pribatizatu zenetik, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (13. or.).
- Galdera, 2006-2010 urteetarako Nafarroako Berdintasunerako Planari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (13. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lan-taldea, zenbait azpiegitura aztertzekoa, zalantzazko errentagarritasun sozial eta publikoa dutenak eta egoera ekonomiko larrian egoteagatik haien urteko defizitak Nafarroako aurrekontuei zama handia ekartzen dienekoak. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (15. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoko haragien eta haragi-jakien kalitate-azterketak egin ditzan.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gure erkidegoko haragien eta haragi-jakien kalitate-azterketak egin ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Maite Esporrín Las Heras andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Urtarrilaren 29an, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Erakundeak supermerkatuetako behikihamburgeretako okelaren kalitateari buruzko azterlan bateko emaitzak eman zituen argitara. Azterlanean detektatu zen, hedabideetan emandako informazioaren arabera, bazirela bi hamburgera-marka zaldiki-okela zutenak etiketatuan horren berri eman gabe, marka gehienek luzaz gaintitzen zutela behi-okelako pieza baten gantz

edukia, eta handia zela tendoi eta kartilagoen erabilera, kalitatezko okelaren orde.

Marka horietako bat dagokio egoitza Nafarroan duen eta gure Foru Komunitatean zabalkunde handia duen elikagai-kate handi bati.

Informazio horiek ikusita, sozialisten parlamentu-taldeak informazioa eskatu zion Osasuneko kontseilariari, jakite aldera ea Nafarroako Gobernuak ikerketarik egin duen berrikitan, gure erkidegoan saltzen den okelaren kalitateari eta etiketatuari dagokienez.

Erantzuna harrigarria izan da, ondokoa esan baitzaigu, hitzez hitz: "Azken urteotan, gure erkidegoan, ez da egin okelaren eta okela-jakien kalitatearen kontrol-kanpainarik. Adierazi beharra dago kalitatearen kontrolak koordinatzen dituzten Europako edo Estatuak erakundeek ez dutela alerarik eman Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Erakundearen azterlana dela eta".

Erantzun hori horrela, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure erkidegoko okelen eta okela-jakien kalitatearen gaineko azterlanak egin ditzan, eta horiei lotutako zenbait alderdiren kontrola egin dezan –etiketatu, osaera, pisua, bolu-mena, erabilera-arauak, mantentzea, eta abar–, jakite aldera Nafarroan erosten eta jaten ditugun hamburgeretako okelak araudi indardunaren arabera exijitu beharreko kalitate irizpideak betetzen dituen".

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Espainiako Gobernuak onetsi nahi duen Toki Administrazioaren erreforma.

XABIER LASA GORRAIZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Xabier Lasa Gorraiz jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baitu Espainiako Gobernuak onetsi nahi duen Toki Administrazioaren erreforma.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iragan otsailaren 15ean, Ministroen Kontseiluek onetsi zuen izapidetzeko igortzea Parlamentura Toki Araubideko Oinarrien Legearen erreforma sakon bat. Erreforma horretan, "finantza-jasangarritasunaren" aitzakian berriro ere, Mariano Rajoy buru duen Gobernuak Estatu osoko toki entitateen autonomiaren murrizketa latza planteatzen du, bai eta 20.000 biztanletik beherako udal eta kontzejuen eskumenen murrizketa ere, diputazioen esku

edo, Nafarroaren kasuan bezala, autonomia erki-degoko gobernuaren esku jartzeko zuzenean. Erreformak, orobat, atea irekitzen dio orain arte toki entitateek emandako hainbat zerbitzu pribatizatzeari.

Zerbitzuak prekarizatuz eta zentralizatuz eta toki entitateei eskumenak kenduz aurreztu nahi izate horren aurrean, Nafarroak bere udalen eta kontzejuen defentsa egin behar du Madriletik datozen inposizioen aurrean, eta toki administrazioaren arloan dituen eskumenak babestu behar ditu.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du toki administrazioaren erreforma, Espainiako Gobernuak onetsi nahi duena, toki entitateen arazoak konpondu beharrean areagotu egiten dituelako; izan ere, udal autonomia murrizten du, eskumen historikoak kentzen dizkie, subsidiarotasun printzipioa urratzen du eta eskumenak zentralizatzen ditu, toki entitateak kontrolatzeko asmo argiarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du defenda dezan gure autogobernua eta, hortaz, toki administrazioaren arloan ditugun eskumenak, eta aurre egin diezai on erreforma honi, gure toki entitateen eskumenak mantenduz, eta bidezko finantzaketa bat eman diezaien, udal zerbitzuak ematen jarraitu ahal izan dezaten ahalik eta baldintza onenetan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 19an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da “Sirio Tormenta 2013” izeneko maniobrak bertan behera utz ditzan.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita “Sirio Tormenta 2013” izeneko maniobrak bertan behera utz ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Batzordean hainbat lasterren eztabaidatu eta bozkatzeko.

Krisi garai honetan, oinarrizko zerbitzu publikoak behin eta berriro murrizten diren garai honetan, gobernuak lehentasunak ezarri behar direla esaten diguten garai honetan, herritarrek ahoa bete hartz eta suminduta ikusten dute Defentsa Ministerioak iragarri izana maniobra militarrik eginen ditzutela.

“Sirio-Tormenta 2013” izeneko operazioa, zeinetan Espainiako Aireko Armadaren ehundik gora gudu-hegazkinek parte hartuko baitute eta zenbait egunetan Errege Bardea bonbardatuko baitute su errealeko tona baterainoko jaurtigaiekin, ez zaio zor austeritate-politika bati eta, noski, ez du lehentasun bat izan behar, gure ustez.

Ezin dugu ahortzi Errege Bardea lege babestutako lurraldea dela, Natur Parke eta Biosferaren Munduko Erreserbaren figurarekin.

Ezin dugu ahortzi, orobat, maniobra horiek okultismo-laino batean egin ohi direla eta gerrajoko horiek egin diren urteetan istripu ugari gertatu dela.

Eta, jakina, ezin dugu ahortzi Nafarroako herritar gehienek bake eta elkarradimeneko kultura bat eskatzen dutela, eta maniobra horiek, hain zuzen ere, zeharo kontrako balioen erakusgarri dira.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du gastuak lehenets ditzan eta, horrenbestez, bertan behera utz ditzan “Sirio-Tormenta 2013” izeneko maniobrak, eta maniobra horiek egitera bideratutako baliabide ekonomikoak enplegua sortzera eta gizarte-xedeetara bidera ditzan.

2. Erabaki hau Espainiako Gobernuari igorriko zaio, Defentsa Ministerioari helaraz diezaion.

Iruñean, 2013ko otsailaren 19an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte-bazterketari buruzko diagnosi bat eta Nafarroako Gizarteratze Plan berri bat egin ditzan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gizarte-bazterketari buruzko diagnosi bat eta Nafarroako Gizarteratze Plan berri bat egin ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, gizarte-bazterketari buruzko diagnosi bat eta Nafarroako Gizarteratze Plan berri bat egitea eskatzen da.

2010eko urrian aurkeztu zen Nafarroako gizarte-bazterketari buruzko diagnosis. Diagnosi horren ondorioz gizarte-bazterkeriari buruzko plan bat egin beharko zen, bazterkeriaren aurkako 1999-2005 plana ordezkatzeko Alabaina, plan horrek ez zuen sekula ikusi argirik.

Bi urte hauetan, nabarmen aldatu da egoera soziala; izan ere, denboran luzatzen ari den eta intentsitate eta sakontasun handia erakusten ari den krisiaren ondorioz, okertu egin dira pertsona askoren bizi baldintzak.

Gauzak horrela, gizarte-bazterketaren diagnosi berri bat egin beharra dago, krisian dagoen gizarte baten errealtatearen bilakaera aztertuko duena, gizarteratze buruzko plan bat taxutze aldera, herri-tarrei ziurtatze aldera krisiarentzako irtenbide sozial eta solidario bat.

Krisia bereziki ari da erasaten pertsona ahulenei. Diru-sarrera gutxien dutenen egoera okerrera egiten ari da, eta areagotu egiten ari da, hartara, kaudimengabezia eta zorpetze arriskua. Langabeziak gora egin du gazteen artean, etorkinen artean eta kualifikazio txikiko pertsonen artean, zeinak, sarritan, aldi baterako lanen eta soldata txikien mende baitaude eta, horrenbestez, beren bizi baldintzen okerragotzeari egin behar baitiote aurre. Langabezia eta bazterketa-arriskua eskutik doaz, tinko, egoera honetan.

Baina badira pobrezia- eta bazterkeria-arrisku larrian dauden beste populazio-talde batzuk ere. Zenbait populazio-taldeak arrisku berezia dute pobrezian erortzeko: langabezia-zerrendak handi-agozten dituzten 50 urtetik gorako pertsonen egoera kezagarria da, eta hor dira, orobat, "langile pobreak" izenekoak, haurrak, gazteak, gurasobakarreko familietako amak, etorkinak eta etorkinen ondorengoak, zenbait gutxiengo etniko... Halaber, gizonzkoen eta emakumezkoen arteko ezberdintasunak ere nabarmenak dira, halako moduan non emakumezkoek pobrezian erortzeko arrisku handiagoa baitute.

"European Anti Poverty Network" izenekoak (Pobrezia- eta Gizarte-bazterkeriaren aurka Borroka egiteko Europako Sarea) krisiak 2009tik 2011ra bitarte izandako eraginari buruzko txostenean dioenez, Nafarroan, 2010ean, biztanleriaren % 9,7 zen AROPE populazioa (at Risk on Poverty and exclusión-pobrezia-eta bazterketa-arriskuan), eta 2011n, berriz, % 13,1; alegia, portzentajea % 35 igo zen bitarte horretan.

Halere, sare horren beraren "Proposamen berriak garai berrietarako, 2013" izeneko txostenean esaten da AROPE izeneko tasarik txikienak heldu direla gizarte-babeseko indizea handiena izan denean; horren adibiderik argiena Nafarroa eta Euskadi dira. Hortik atera behar dugun ondorioa da ongizate-sistema mantentzea dela krisitik kohesioz eta solidaritatez irtetea ahalbidetuko digun estrategietako bat.

Pobrezia eta bazterketa fenomeno multidimensionalak dira. Bazterketan, faktore ekonomikoez gain, faktore sozialak eta politikoak ere hartu behar dira kontuan, nahiz eta, egun bizi dugun egoeran, langabeziak etengabe handitzen duen

pertsona zaurgarrien edo gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan daudenen multzoa.

Beharrezkoa eta ia nahitaezkoa da ezagutzea zertan den gure erkidegoan bazterketa, zaurgarritasun berrien hedadura, krisiaren ondorioz gertatzen diren desabantailak, gure gizartean pobreziak dituen askotariko aurpegiak, ezgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen zaurgarritasun-egoera, kualifikazio txikia izatetik heldu den problematika, iraupen luzeko langabetuen etorkizuna, hezkuntza arloko desberdintasunak, etorkinen egungo zailtasunak. Eta, batez ere, ongizate-esta-

tua eta gizarte-politikak sendotzeko, zabaltzeko eta hobetzeko proposamenak, Nafarroako gizartea modu sozial eta solidarioan irten dadin krisitik.

Mozioren testua

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako gizarte-bazterketari buruzko diagnosi bat egin dezan, horretan oinarrituz Gizarteratze Plan berri bat abian jarri ahal izan dadin 2013a bukatzean.

Iruñean, 2013ko otsailaren 21ean

Eleduna: Roberto Jiménez

Moziua. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraungarritasunari buruzko Lege aurreproiektua erretira dezan.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko moziua, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraungarritasunari buruzko Lege aurreproiektua erretira dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Moziua Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko moziua aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Alderdi Popularraren Espainiako Gobernua orain dela urtebete hasi zen iragartzen bere

asmoa dela toki entitateen funtzionamenduari buruzko oinarri juridikoak aldatzea.

Alderdi politiko guztiek aho batez errebindikatu dute, duela zenbait urtetik hona, toki entitateen eskumenak eta finantzaketa arautzen dituzten legeak gaurkotu beharra dagoela.

Orain, gizarteak akordioa eta adostasuna eskatzen dizkigunean gure estatu-ereduari buruzko edozein aldaketa egiteko, Ministroen Kontseilua toki araubidearen erreforma egiteko aurreproiektu bat izapidetzen hasi da, municipalismoaren oinarriak auzitan jartzen dituena eta, horrekin batera, azken hogeita hamar urteotan gure herrialdearen gizarte-kohesioa bermatu duen ereduaren oinarria bera ere.

Denak ohartzen gara zorroztasuna, austeritatea eta efizientzia aplikatu beharra dagoela baliabideak administratzean, baina argudio horiek ezin dira inola ere baliatu zerbitzu publikoak kentzeko edo garestitzeko aitzakia gisa. Udalek eman beharreko gutxieneko zerbitzuak ziurtatu beharrean, arrisku larrian jartzen dira.

Erreforma honekin, milaka alkate eta zinegotzi, herritarrek hautestontzietan hautatuak beren herriak eta hiriak gobernatzeko, ez dira gehiago arduradunak izanen beren udalek eman beharko lituzketen zerbitzuak kudeatzean eta horien gaineko erabakiak hartzean.

Udalak funtsezko erakundeak izan ziren transizio demokratikoan. Gertutasunetik eta hurbilita-

sunetik gobernatzea nortasun ikur bat izan da, Espainiak azken hamarkada hauetan izan duen sakoneko eraldatze eta modernizazioa erraztu duena. Gobernuaren proposamenaren arabera, toki entitate gehien-gehienetan esku hartu eta haiek eskumenik gabe utziko lirateke, eta horrek arriskuan jartzen du eta ahulago egiten du gure demokrazia.

Udal egiturak Estatuaren egituraketan egiaz duen eginkizunaren gaineko ezjakintasun sakon batetik taxutu du Gobernuak proposamen hau. Itxura batean, ez du kontuan hartu zerbitzu publikoak ezin direla baloratu soilik irizpide ekonomikoaren arabera, baizik eta, lehenik eta behin, erabil-tzaileentzat –herritarrentzat– dakarten onura sozialaren arabera.

Gizarte- eta lurralde-kohesioaren bermea izan da gure Estatu konstituzionalaren oinarria. Udal txikietan –ehuneko 86,13; izan ere, 6.796 udal dira 5.000 biztanletik beherakoak–, toki gobernu tresna eragingarri bat izan da gure bizilagunek beren eskubideak baliatu ahal izateko, berdintasun baldintzetan jasotzeko prestazioak eta zerbitzuak, zein ere den haien bizilekua, halako moduan non aurre egin baitzaie landa ingurunearen despopulazeari eta deserrotzeari eta sustatu baita landa garapen iraugarria.

Munizipalismoak legeen eta toki-finantzaketaren erreforma bat eskatu ohi du, toki entitateei ahalbidetuko diena eskumen ongi definituen eta behar adinako finantzaketaren bidez bete ahal izatea beren erantzukizunak. Bada, alkateen eta udal federazioen eskaera historikoak aintzat hartu beharrean, erreforma-proposamenak dakarrena da hartzaileengandik –bizilagunengandik– urruntea eta deslokalizatzea udalen berezko eskumenak; izan ere eskumenak eta finantza-baliabideak –alegia, baliabide ekonomikoak– autonomia erki-degoen esku uztea aurreikusten da. "Berezkoak" ez diren eskumenen kasuan, berriz, zerbitzuen prestazioa ziurtatzetik urrun, desagertu eginen dira, zerbitzu horiek ez baititu beste administrazio batek ematen. Bestalde, diputazio probintzialaren edo, gure kasuan, gobernu autonomikoaren esku gelditzen diren zerbitzuak pribatizatu egin ahalko dira, eta herritarrek ordaindu beharko dute horrek ekarriko duen tasa eta prezio igoera.

Tokiko lege honen aplikazioaren beste ondorio kezagarrienetako bat da tokiko sektore publikoa

eraistek arriskuan jarriko dituela 250.000 enplegu publiko baino gehiago.

Konklusio modura esan behar da gure konstituzioak eta Europako Gutunak toki autonomia bermatzen dutela, demokraziaren, kohesioaren eta Estatu deszentralizatu baten lurralde- eta gizarte-egituraketaren oinarritzko printzipio gisa. Denon artean saiatu gara taxutzen herritarrei zerbitzu gehiago eta hobeak eman ahalko dizkien tokieredu bat, eta parte-hartze, integrazio eta bizikidetasun eredu diren tokiko gobernuak eratu ditugu.

Gure bizilagunekiko konpromisoak eta udaletako agintari garen aldetik daukagun erantzukizunak exijitzen digu zalantzarik gabe azal gaitezen toki gobernuen defentsan.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Espainiako Gobernuak premiatzea Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraungarritasunari buruzko Lege aurreproiektua erretira dezan.

2. Espainiako Gobernuak premiatzea negoziazio prozesu bat jar dezan abian parlamentu-talde guztiekin eta Espainiako Udal eta Probintzien Federazioarekin, toki-esparrua arautzen duten legeen erreformari ekin ahal izateko, toki autonomia eta herritarren eskubide sozialak bermatuz.

3. Berrestea toki autonomia eta udalek duten eginkizun garrantzitsua aukera berdintasunari, demokraziari eta gizarte-kohesioari dagokienez, horiei esker egituratu ahal izan baita lurraldea eta eman ahal izan baitira oinarritzko eta funtsezko zerbitzuak, deszentralizatuak eta herritarrengandik hurbilekoenak.

4. Udalei eta beren biztanleei, bereziki udal txikietakoei, bere babesa eta aintzatespena helaraztea, lurraldea gizarte osoarentzat bizirik iraunarazte aldera egiten ari diren lanarengatik.

Halaber, erabaki hau Espainiako Gobernuari, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari, Kongresuko talde politikoei eta Espainiako Udal eta Probintzien Federazioko Gobernu Batzordeari helaraz dakien eskatzen du.

Iruñean, 2013ko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna ospatzearekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bat egiten du Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna ospatzearekin.

2. Gonbit egiten dio Nafarroako gizarte zibilari, ospakizun horrekin bat egin dezan.

3. Herritarrak animatzen ditu beren babesa eta elkartasuna adieraz diezazkieten gaixotasuna duten pertsoneri eta haien familiei.

4. Dei egiten die entitate publikoei eta enpresa pribatuei, gisa horretako gaixotasunak ikertu eta tratatzeko programa berriak bultzatzen.

5. Nafarroako Gobernuari proposatzen dio Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna ospatzen den hurrengo urteetan jarduera-programa bat egin dezan horren kariatara.

6. Erabaki du adierazpen instituzional hau helaraztea Gaixotasun Arraroen Espainiako Federazioari.

7. Adierazten du bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak onar ditzan elkarte hauen eskakizunak eta osasun-sistema publikoan ezar ditzan elkarte hauek eskatzen dituzten protokoloak eta jarduketak koordinatuak.”

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuizatzen baitu Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraungarritasunari buruzko Lege aurreproiektua.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere arbuiorik erabatekoena adierazten du Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraungarritasunari buruzko Lege aurreproiektuaren aurrean, zeina Ministroen Kontseiluak otsailaren 15ean onetsi baitzuen; izan ere, udal eta toki autonomiaren aurkako eraso bat da.

2. Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari exijitzen dio aurreproiektu hori berehala erretira dezan.

Nafarroako toki mapa aldatzeko prozesua abian den honetan, Parlamentu honek adierazten du bere nahia dela kontuan har daitezen eragile nagusien iritziak eta ekarpenak; alegia, kontzeju, udal eta mankomunitateenak.”

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak emakumezkoen eta gizonezkoen arteko gizarte- eta lansari-desberdintasunei dagokienez.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak emakumezkoen eta gizonezkoen arteko gizarte- eta lansari-desberdintasunei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako María Victoria Arraiza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Gizarte Politike-tako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Lansari-berdintasunaren egunaren ospakizunen kariatara UGTk egindako "Lansari-desberdintasunei buruzko txostenak" agerian utzi du gizonezko batek baino 82 egun gehiago lan egin behar dutela emakume espainiarrek, soldata bera izateko; alegia, iaz baino bi egun gehiago. Orduan ehuneko 22koa zen soldata-arraila, eta kontabilitzatutako azken aldian, berriz, ehuneko 22,55era igo da.

Estatuko sailkapen horren barruan, Nafarroa da alderik handiena daukan autonomia erkidegoa (26,15).

Zalantzarik gabe, krisi egoeraren eta murrizketa-politiken eraginez areagotzen ari da gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna, baita soldatari dagokionez ere.

Ahozko galdera

Nafarroako Gobernuak zer neurri ezarriko ditu egoera horri erantzuteko? Ba al du egoerari buruzko diagnostikorik, kontuan hartuta berdintasunaren arloak pairatu dituen murrizketak?

Iruñean, 2013ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak baliatuko ote dituen Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenak Nafarroako toki entitateen eskumenen eta eskubideen alde egiteko.

XABIER LASA GORRAIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Xabier Lasa Gorraiz jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak baliatuko ote dituen Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenak Nafarroako toki entitateen eskumenen eta eskubideen alde egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Xabi Lasa Gorraizek, Lege-

biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari José Javier Esparza jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Iragan otsailaren 15ean, Ministroen Kontseiluek onetsi zuen Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legearen erreforma izapidetzea, udal autonomiarentzako modu larriki murriztailean izapidetu ere.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenak baliatuko al ditu Nafarroako toki entitateen eskumenak eta eskubideak defendatzeko, ala, aitzitik, besterik gabe onartuko du eskumen horien aurka eta gure udal eta kontzejuen eskubideen aurka bete-betean jotzen duen lege bat inposatzea?

Iruñean, 2013ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Xabi Lasa Gorraiz

Galdera, Tuterako Musika Kontserbatoriorako urte anitzeko hitzarmenaren baldintzei buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Tuterako Musika Kontserbatoriorako urte anitzeko hitzarmenaren baldintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero ondoko galdera aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilari José Iribas jaunak Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean hainbat lasterren ahoz erantzun dezan.

Tuterako musika kontserbatorioak ziurgabetasun egoera bizi du bere finantzaketari dagokionez, eta horrek eragin negatiboa izan dezake kontserbatorioaren jardueran. Nafarroako Gobernuak % 25 murriztu zuen funtzionamendurako eta ematen diren ikasketen irakaslanerako diru-laguntza, eta horrek arriskuan jartzen zuen lan horren iraupena. Zenbait gertakizun izan dira, eta, azkenik, Hez-

kuntza Departamentuak Kontserbatorioko guraso-elkarteari eta Tuterako Departamentuari emandako informazioaren arabera, ziurtatuta dago musika kontserbatorioaren jarduera, urte anitzeko hitzarmen baten bidez.

Galdera:

Zeintzuk dira urte anitzeko hitzarmenaren baldintzak? Finantzaketaren % 100 egiten al du horrek? Erribera osorako zerbitzu bat dela hartuko

al da kontuan? Erantzunen al zaie hezkuntza erkidegoaren eskariei, ikastetxe horretako hezkuntza erkidegoak bildutako 7.402 sinadurekin batera doan idazkian jasotakoei? Zein egunetan sinatuko da hitzarmena, jada aurrematrikula garaian edo are ikasturtean zehar, ikasturte honen hasieran gertatu zen bezala, ustekaberik izatea ekiditeko?

Iruñean, 2013ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, 2012ko ekitaldian Osasun Departamentua xede izan duten kreditu gehikuntzei buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, 2012ko ekitaldian Osasun Departamentua xede izan duten kreditu gehikuntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltza-

reko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Orain dela gutxi jaso dugu 2012ko aurrekontuari dagozkion kreditu-aldaketei buruzko informazioa.

Informazio horren arabera, hirugarren eta lau-garren hiruhilekoan soilik, 40 milioi euro inguru egiten zuten Osasun Departamentua xede zuten kreditu-gehikuntzek.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

Zenbat egiten dute 2012ko ekitaldian Osasun Departamentua xede zuten kreditu-gehikuntzek?

Iruñean, 2013ko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, jakitekoa Osasun Publikoaren Institutuak sukalde zerbitzuari buruzko txostenik igorri duen Osasun Departamentura hura pribatizatu zenetik.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa Osasun Publikoaren Institutuak sukalde zerbitzuari buruzko txostenik igorri duen Osasun Departamentura hura pribatizatu zenetik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera

hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaión:

“Mediterránea de Cátering” enpresak urtarrilaren 21az geroztik kudeatzen ditu Bideko Ama Birjina Ospitaleko sukaldeak. Lehendabiziko egunetan, profesionalen nahiz gaixoen kritika eta kexa pila egon dira; horien artean, nabarmenak dira antolamendu eta aurreikuspen falta, 3 ordutaraino ere iritsi diren atzerapenak bazkariak banatzean, higie-neurririk eza, arazoak elikagaien egoerari eta kalitateari dagokionez, eta abar. Gure ustez, gorabehera horiek oso larriak dira, arrisku bat ekar baitezakete ospitaleetako gaixoen osasunari begira.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Osasun Publikoaren Institutuak egindako txostenik igorri al zaio Osasun Departamentuari, sukalde-zerbitzua pribatizatu zenez geroztik, zerbitzu horri dagokionez? Baiezkoan, erantzunarekin batera igortzea eskatzen dugu.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, 2006-2010 urteetarako Nafarroako Berdintasunerako Planari buruzkoa.

BIKENDI BAREA Aiestaran JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, 2006-2010 urteetarako Nafarroako Berdintasunerako Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bikendi Barea Aiestaran, Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari.

Kontuan izanda Nafarroako Berdintasunerako Plana 2006-2010 urte bitartekoa dela, planaren epemuga amaituta, ondokoa jakin nahi dugu:

- Zein den Berdintasunerako Planari ematen ari zaion jarraikortasuna.

- Zertan den plangintza bera eta plangintzaren luzapena.

- Planaren garapen maila zein den.

- 2009, 2010, 2011eta 2012ko urteroko Berdintasunerako Planak eta horien ebaluazioak.

Iruñean, 2013ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lan-taldea, zenbait azpiegitura aztertzekoa, zalantzazko errentagarritasun sozial eta publikoa dutenak eta egoera ekonomiko larrian egoteagatik haien urteko defizitak Nafarroako aurrekontuei zama handia ekartzen dienekoak.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin lan-talde bat sortzeko “erabakia, zenbait azpiegitura aztertzekoa, zalantzazko errentagarritasun sozial eta publikoa dutenak eta egoera ekonomiko larrian egoteagatik haien urteko defizitak Nafarroako aurrekontuei zama handia ekartzen dienekoak”. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsi zuen, 2013ko otsailaren 13an egindako bilkuran. Hona testua:

“1. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean lan-talde bat eratzen da, zenbait azpiegitura aztertzekoa, zalantzazko errentagarritasun sozial eta publikoa dutenak eta egoera ekonomiko larrian egoteagatik haien urteko defizitak Nafarroako aurrekontuei zama handia ekartzen dienekoak.

2. Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiara jakinaraztea, aipatu lan-taldearen osaerari eta eratze-ari buruz behar dena xeda dezan”

Iruñean, 2013ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

